

Txoriak.eus

HIZTEGIAN AURKITUKO EZ DITUZUN TXORI IZENAK

Euskal Herriko hegaztiei buruzko webgunea sortu du Asier Sarasua biologo eta filologoak: txoriak.eus. Helburu nagusia txorien euskarazko izenak biltzea da, baita horien inguruko informazioa ematea ere. Hortaz, bi alderdi jorratu ditu Sarasuak webgunean: batetik ornitonimia (txori izenak), eta bestetik ornitologia (hegaztiak aztertzen dituen zoologiaren adarra). Natur ondarea eta ondare linguistiko eta kulturala uztartu ditu.



Ainhoa Ortega Bretos

@ob_ainhoa

Biologo, txorizale, filologo eta dialektologia zale izanda, horrelako egitasmo bat sortzera kondenatuta zegoela uste du Asier Sarasuak. 1990eko hamarkadan hasi zen Eibarko baserritarrak elkarrizketatzen. Orduan konturatu zen, berak ikasketetan eta liburuetan ikasitako txori izenak ezezagunak zirela bertako baserritar eta ehiztariantzako. Haiek beste hitz batzuk erabiltzen zituzten, Sarasuak, biologo eta filologo izan arren, ezagutzen ez zituenak.

Hegaztien euskarazko izen gehiago jasotzeko asmoz, elkarrizketak egiten hasi zen Eibar inguruko herrietan. Azkeneko, proiektua Euskal Herrira zabaltzea erabaki zuen, eta dagoeneko elkarrizketak egin ditu zazpi lurraldeetako hainbat herritan.

1990eko hamarkadan hasi arren, denbora batez beste proiektu eta lan batzuetan ibili da Sarasua. Azken bi urteetan ekin dio berriz ere egitasmoari, horrela go gai baten inguruan euskaraz material

gutxi dagoela ikusita. 2016ko abenduan, urtetan bildutako guztia erakusgarri jaritzeko txoriak.eus webgunea sortu zuen.

200 elkarrizketa

Proiektuaren egile bakarra da Asier Sarasua. Afizioz sortu du txoriak.eus egitasmoa, eta galzorian zegoen txori izenen ondarea batzeko eta katalogatzeko asmoarekin ekin dio berriz ere. Horretarako, hainbat gai landu ditu webgunean.

Batetik, alderdi naturalistiko edo zoologikoa jorratu du. Hegaztien zerranda osatu eta horien inguruko informazio biologikoa jarri du webgunean. Txori bakoitzari fitxa sortu dio. Bertan azaldu du noiz eta non ikusi daitekeen hegazti bakoitza, eta zeintzuk diren horretarako dauden habitat eta txoko egokienak. Horrez gain, hedadura-mapak, argazkiak eta bestelako multimedia edukiak txertatu ditu fitxetan. Hegazti bakoitzak egiten duen hotsa ere entzun daiteke.

Txoritokiak izeneko atal bat ere landu du Sarasuak. Euskal Herriko eta inguruetako biosfera erreserba, parke eta aintziren inguruko informazioa azaldu du. Oraingoan, Urdaibaiko biosfera erreserba, Santoña, Txingudi, Salburua eta Pitillasko hezeguneari buruzko materiala argitaratu du, baina aurrerago beste batzuk ere lantzeko asmoa du.

Azkenik, txorien euskal izendegia osatu du biologo eta filologoak, hegaztiak Euskal Herriko eskualde bakoitzean jasotzen duten izena zehaztuz. Horretarako, 200 elkarrizketa egin ditu, eta hainbat liburu eta artikulua ere begiratu ditu.

Hiztegia osatzeko oinarrizko iturria ahozkoa da

Adineko baserritar, ehiztari eta arrantza-leak elkarrizketatu ditu Sarasuak. Lehenengoak 1990eko hamarkadan, eta azkenak 2017ko urtarrilean. Aurrerago ere beste batzuk egingo dituela azaldu du.



Egunero erabiltzen diren hiztegiek, argazkian agertzen den txoria txantxangorria dela esango dizute. Euskal Herrian barna galdezka hasiz gero berriz, ondoko zerrenda baino luzeagoa aterako zaizu: anttonpapargorri, lepogorri, txantxako, txindor, lebatxori, papatx, txintxagorri, zintzurgorri, txintxiri, xafrantxist, txantxingorri, parpar, txotxolongorri, txantxango, papogorri. Argazkia Bittor Mutiozabalek Zarauzko Iñurritzako biotopoa ateratakoa da.

Hiztegia osatzeko oinarrizko iturria, beraz, ahozkoa da. Baina txori izenak biltzen dituzten ehun bat liburu, artikulua eta hiztegi ere landu eta aztertu ditu Sarasuak, ahozkoekin alderatu ahal izateko. Azaldu duenez, elkarrizketa horietan nabarmen ikusten da, beste alor lexikalean ez bezala (ugaztunak, anfibioak, perretxikoak, baserriko tresnak eta abar), hegaztien inguruan jasotako hitz gehienak euskara batutik urrun daudela, eta askotan hiztegietatik kanpo.

Hortaz, txorien idatzizko izenak eta ahozkoak bat datozen ala ez aztertzea interesatzen zaio Sarasuari. Izan ere, norbaitek txori izen bat sartzen duenean hiztegian, izen hori hedatu eta nagusitu egiten da gainerako liburu eta

hiztegietan. Baina sarri gertatzen da, hitza idatziz zabaldu arren, ez dela ahoz erabiltzen. Horrez gain, herri batetik bestera izen oso ezberdinak eduki ditzakete hegaztien, txori bakar batek dozena bat izen jaso dezake.

Anas crecca izeneko hegazti espezieari, esaterako, ‘ahatetipi’ esaten zaio Zuberroan, ‘ahatetxiki’ Urola Kostaldean, Gorbeia inguruetan, Goierrin eta Bidasoa Garaian. Donostialdean, aldiz, ‘txertxeta’ deitzen diote hegazti berari, eta ‘zertzeta’ erabiltzen dute Durangaldean, Debagoienan, Debarrean, Lea Artibain, Arratia Nerbioin, Gorbeia inguruetan, Goierrin, Gernika-Bermeon, Urola Kostaldean, Hego Lapurdiko Hirigunean, Tolosaldean eta Plentzia-Mungian.

» ASIER SARASUA:

“Baserritarrek eta ehiztariak esandakoetan nabarmen ikusten da, ugaztunetan, anfibioetan eta perretxikoetan ez bezala, hegaztien hitz gehienak euskara batutik urrun daudela, eta askotan hiztegietatik kanpo”

Txoriak.eus egitasmoaren bitartez, hegaztien izendegia jaso eta berreskuratzen nahi du Sarasuak. Izan ere, galzorian dagoen ondarea dela uste du: “Alor semantiko zinez aberatsa da hegaztien, eta gazteen artean erabat galzorian dago, transmisioa etenda eta estandarreko formak erabat nagusituta”. ■